
Zeliakia: glutenak RNA ere aldatzen du

Orain arte, bazekiten glutenak immunitate-sistemaren ezohiko erantzun bat eragiten duela zeliakoetan, eta, ondorioz, kalte egiten diola heste meharraren mukosari. Orain, EHUko genetika-riek lehenengo aldiz ikusi dute glutenak RNA molekuletan ere aldaketak eragiten dituela.

Hain zuzen, ikertzaileek ikusi dute RNAREN metilazio-patroia aldatzen duela, eta, haien ustez, litekeena da prozesu horrek eragin zuzena izatea gaixotasunaren patogenesisian. Esaterako, XPO1 izeneko genearen RNA aldatzen du glutenak (hesteetako hanturaren garapenean parte hartzen duen genea). Metilazio-aldaketa horien ondorioz, XPO1 proteina gehiago sortzen da, eta ikertzaileek uste dute horrek hestearen hantura areagotzen duela. Gainera, XPO1 genean dagoen aldaera genetiko batak areagotu egiten du RNAREN aldaketa hori, eta pertsona horiengan hesteko hantura garatzeko arriskua handitzen du.

Metilazioak zeliakoan patogenian parte hartzen duela erakusten duen lehenengo ebidentzia da Aina Castellanos Rubio ikertzaileak eta taldekideek frogatutakoa. [Gut aldizkari zientifikoan argitaratu dute](#). Badirudi glutenetik eratorritako gliadina peptidoa bera dela RNAREN metilazioa aldatu eta hesteetako hantura eragiten duena.

Joera genetikoaz gain, badirudi infekzio biralek eta mikrobiomaren konposizioak ere laguntzen dutela gaixotasun zeliakoa garatzen. Birusak eta mikrobiomaren konposizioa bera RNAREN metilazio-

aldaketekin erlazionatu izan dute aurreko ikerketa batzuek. Hortaz, badirudi RNAREN metilazio-patroia ulertzea gakoa izango dela zeliakiaren patogenesisia hobeto ulertzeko.



Glutenetik eratorritako gliadina peptidoak, RNAREN metilazioa aldatu eta hesteetako hantura eragiten duten molekulak. ARG.: Wikimedia.

«Lehenengo aldiz deskribatu dugu glutenak aldaketak eragin ditzakeela RNAN, eta aldaketa horiek nabariagoak direla genetika jakin bat duten pertsonetan», dio Castellanosek. «Ikerketarako ate berriak irekiko ditu horrek, RNAREN aldaketek hanturazko erantzunean duten garrantzia deskribatu dugulako eta aldaketa horiek ingurumen-faktoreen menpe daudela ikusi dugulako. Hemendik aurrera kontuan hartu beharko da, bai gaixotasuna ulertzeko, bai tratamendu berriak garatzeko». ●